

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

334/2026 Foru Agindua, uztailaren 7koa. Onestea landako askotariko zerbitzuak eta herritarrentzako bestelako zerbitzuak ezarri, zabaldu eta hobetzeko dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko dirulaguntzen ebazpena

Martxoaren 13ko 156/2026 Foru Aginduaren bidez, herritarrentzako landako askotariko zerbitzuak eta bestelako zerbitzuak ezarri, zabaldu eta hobetzeko dirulaguntzak norgehiagoka araubidean ematea arautzen duen 2026ko ekitaldirako deialdia onetsi zen.

Foru agindu hori 2026ko martxoaren 20ko ALHAOn argitaratu zen, eta eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izan zen, ALHAOn argitaratu zen egunetik aurrera. Epea 2026ko apirilaren 20an bukatu zen.

Deialdiaren laugarren oinarriak hauxe ezartzen du:

- Askotariko zerbitzuetarako gehieneko zuzkidura 60.000,00 euro izango da hasiera batean. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100eko dirulaguntza jaso dezake eskaera bakoitzak, eta gehienez ere 25.000,00 euro.

- Herritarrentzako zerbitzuekin lotutako inbertsioetarako gehieneko zuzkidura 37.500,00 euro izango da, hasiera batean. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100eko dirulaguntza jaso dezake eskaera bakoitzak, eta gehienez ere 25.000,00 euro.

- Joan-etorrietarako gehieneko zuzkidura 2.500,00 euro izango da hasiera batean. Landako askotariko zerbitzua dagoen herrigunetik kanpo egindako joan-etorri bakoitzeko 0,15 euroko modulu bat lagundu ahal izango da diruz eskaera bakoitzeko, eta, gehienez ere, 2,00 euro emango dira joan-etorriko.

Deialdiko laguntza lerroetako batean soberakinik izanez gero, beste lerroa handitu ahal izango da ekitaldi berean.

Eskaerak hasieran aztertuta, horietako batek ere ez du joan-etorrietarako laguntza eskaerarik aurkeztu. Horrez gain, eskatutako zenbatekoen batura 100.000,00 eurotik gorakoa da, eta, beraz, deialdiaren zenbatekoa hasierako zenbatekoaren ehuneko 40 handitu daiteke gehienez, beste deialdi bat egin beharrik gabe, deialdiaren laugarren oinarrian ezartzen den bezala.

Deialdiaren oinarriak balorazio batzordeko kideen eskura jarri ondoren, bai eta eskaerak eta aurkeztutako espediente bakoitzerako egindako txosten indibidualizatu bakoitza ere, akta bat egingo da, eta bertan dirulaguntzak proposatuko dira, eta horien espediente zenbakia, onuraduna, diruz lagun daitekeen aurrekontua, proposatutako dirulaguntza eta dirulaguntza egozteko ildoa foru agindu honen I. eranskinean jasoko dira.

Proposatutako dirulaguntzak 126.182,96 eurokoak dira guztira (deialdian ezarritako 100.000,00 euroko mugaren gainetik), eta egozpen lerro hauetan banakatu daitezke:

— Askotariko zerbitzuak: 101.873,77 euro

— Herritarrentzako zerbitzuak: 24.309,19 euro

Lehenengoa hasierako 60.000,00 euroko kreditu mugatzailearen gainetik dago. Bigarrena, ordea, hasierako 37.500,00 euroen azpitik dago. Deialdiko laguntza lerroetako bateko soberakinak beste lerroak handitzen dituzte ekitaldi berean. Era berean, balorazio batzordeak proposatu du deialdiaren zenbatekoa 26.182,96 euroan handitzea (gehienez ezarritako hasierako zenbatekoaren ehuneko 40 baino gutxiago), aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko.

01291003-2026/00004 espedienteari dagokionez, Kripango Udalak aurkeztutako eskaera eta dokumentazioa aztertu ondoren, ezetsi egin behar da, ez baita askotariko zerbitzu bat, baizik eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 26. artikuluan jasotako udal eskumeneko zerbitzu bat. Kasu honetan ere banakako txostena egin da.

Ekainaren 18ko 313/2026 Foru Aginduen bidez, deialdiaren gehieneko zuzkidura osoari 26.182,96 euro gehitzea onetsi zen, 126.182,96 euro guztira.

Deialdiaren zortzigarren oinarriarekin bat etorritik, eskaera bakoitzarekin lotutako izapide guztiak bete ondoren, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatu titularrari aurkeztuko zaizkio balorazio batzordearen aktan jasotako proposamenak.

Horregatik guztiagatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Dirulaguntzak ematea foru agindu honen I. eranskinean zerrendatzen diren toki erakundeei, landako askotariko zerbitzuak ezarri, zabaldu eta hobetzeko aurkeztutako proiektuak egin ditzaten.

Bigarrena. Foru agindu honen II. eranskinean zerrendatzen diren pertsonen eskaera ezetsia, ez delako askotariko zerbitzua, baizik eta udal eskumeneko zerbitzu bat, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 26. artikuluan jaso.

Hirugarrena. Dirulaguntzen ordainketa izenduna izango da I. eranskineko erakunde publiko onuradun bakoitzarentzat, eta honela egingo da:

— Zenbateko osoaren ehuneko 50, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko titularrak dirulaguntzak emateko ebazpen hau eman ondoren, eta erakunde onuradunak inbertsio kontratuaren kontratua edo adjudikazio ebazpena aurkeztu ondoren.

— Gainerako ehuneko 50a, berriz, erakunde onuradunek dirulaguntzaren xede den jarduerari lotutako gastuen eta ordainketen justifikazioa aurkeztu ondoren.

Laugarrena. Inbertsioei dagokienez, onuradunak laguntza ekonomikoa erabili beharko du bere lokaletako edo errentan hartutakoetako obrak edo ekipamenduak egiteko, eta 2026ko irailaren 30a baino lehen egin beharko ditu.

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak, salbuespenezko kasuetan eta dagozkion justifikazioa onartu ondoren, gauzatze epea luzatu ahal izango du. Luzapen horren iraupena jarduketa zehatzaren 2026ko azaroaren 15era arteko egoeraren arabera finkatuko da, baldin eta interesdunak hasierako epea amaitu baino lehen eskaera justifikatua egiten badu.

Frogagiriak eta deialdiaren hamaikagarren oinarrian eskatutako dokumentazio guztia aurkezteko azken eguna 2026ko urriaren 30a izango da.

Bosgarrena. Dirulaguntzak, guztira 126.182,96 eurokoak, Arabako Foru Aldundiaren 2026. urterako aurrekontuan jasotako aurrekontu partida honen kontura emango da: "10202. G/414100/76290110 Landako Askotariko Zerbitzuak Garatzeko Programa. Inbertsioak".

Seigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, eta argitalpenak jakinarazpen ondorioak izango ditu, deialdiaren zortzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

Zazpigarrena. Foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorritik Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin. Hala ere, pertsona fisikoen kasuan, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio egintza eman

duen organoari hilabeteko epean, administrazio egintza honen jakinarazpen egokia jaso ondorengo egunetik aurrera; erakunde publikoen kasuan, aldeztu aurreko aukerako errekerimendua egin ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 7a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JAVIER GORBEÑA GARCÍA

I. ERANSKINA

Erakunde onuradunen eta emandako dirulaguntzen zerrenda

ESPEDIENTEA	ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN AURREKONTUA	PROPOSATUTAKO DIRULAGUNTZA	EGOTZI BEHARREKO LERROAK DIRULAGUNTZA
01291003-2026/00001	ZAMBRANAKO UDALA	13.443,10 €	13.443,10 €	Landako askotariko zerbitzuak
01291003-2026/00002	ZAMBRANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	1.913,99 €	1.913,99 €	Herritarrentzako zerbitzuak
01291003-2026/00003	ERRIBERAGOITIKO UDALA	100.152,47 €	25.000,00 €	Landa askotariko zerbitzuak
01291003-2026/00005	URIZAHARREKO UDALA	13.430,67 €	13.430,67 €	Landako zerbitzu anitzak
01291003-2026/00006	VILLANUEVA DE VALDEGOVÍAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA. VALDEGOVIA	25.652,00 €	25.000,00 €	Landako askotariko zerbitzuak
01291003-2026/00007	VILLANUEVA DE VALDEGOVÍAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA. VALDEGOVIA	27.584,45 €	25.000,00 €	Landako askotariko zerbitzuak
01291003-2026/00008	VILLANUEVA DE VALDEGOVÍAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA. VALDEGOVIA	22.395,20 €	22.395,20 €	Herritarrentzako zerbitzuak
Dirulaguntza, guztira:			126.182,96 €	

EGOZPEN LERROEN ARABERAKO BANAKAPENA	
101.873,77 €	Landako askotariko zerbitzuak
24.309,19 €	Herritarrentzako zerbitzuak

Dirulaguntzaren erakunde onuradun bakoitzaren IFZ eta BP kodeen zerrenda:

ESKATZAILEA	IFZ	BP
ZAMBRANAKO UDALA	P0107100J	50000381
ZAMBRANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	P0100201C	50000201
ERRIBERAGOITIKO UDALA	P0105200J	50000368
URIZAHARREKO UDALA	P0104900F	50000367
URIBARRI GAUBEAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	P0100077G	50000008
URIBARRI GAUBEAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	P0100077G	50000008
URIBARRI GAUBEAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	P0100077G	50000008

II. ERANSKINA

Eskaera ezetsi zaien eskatzaileen zerrenda:

ESPEDIENTEA	ESKATZAILEA	IFZ
01291003-2026/00004	KRIPANGO UDALA	P0102000G